



2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:



Erandio tokiko merkataritzako negozio/enpresa asko dituen herri bat da, beraz, negozio horietan hitzorduak, erosketak, eskariak eta abar egiteko erraztasunak eta erosotasunak eskaintzeko leku aproposa dela uste dugu, bertako edota bertan erosketak egiten dituzten pertsonentzat.

Gure enpresaren bezeroak bi multzotan banandu ditzakegu:

E!NHES



Alde batetik, enpresak daude; hain zuzen, gure zerbitzua erabiliko duten enpresak. Hauek Erandio udalerrian egon behar dira, eta horrez gain, tokiko merkataritzako enpresa/negozioak izan behar dira. Hau da, Erandion sortutako enpresa txikia/ertaina gure zerbitzua erabil dezakeen enpresa izango da; Erandion aurkitzen den Eroski denda (edo horrelako supermerkatu/enpresa handiak), berriz, ezin ditu gure zerbitzuak eskuratu.

Beste aldetik, hitzorduak edota eskariak egingo dituzten erabiltzaileak daude (erabiltzaile partikularrak); hau da, lehen aipatutako enpresen bezeroak, gure zerbitzua erabiliko dutenak. Gure zerbitzua zuzenduta dago interneta erabiltzeko gai den edonorentzat, webgunean erregistratzeko eskatuko den baldintza bakarra izango da 16 urte baino gehiagoko pertsona bat izatea, 16 urtekoak barne. Laburbilduz, 16 urte baino gehiago izatearekin, interneta erabiltzea jakitearekin eta Erandion erosketak egitearekin nahikoa da gure zerbitzua erabili ahal izateko.

Esan dezakegu ez dugula lehiakide zuzenik, gure inguruan ez baitago zerbitzu bera edo antzekoa eskaintzen duen enpresarik. Egia esanda, guk eskaintzen duguna egiteko beste aukera batzuk daude; egiteko modu tradizionala negoziara telefonoz deitzea edo bertan aurkeztea da, eta horren aurka jokatu behar dugu. Hala ere, telefono bidez deitzea ez da gure enpresak eskaintzen duenaren parekoa; gure zerbitzuak deskontuak eta erraztasunak eskaintzen baititu, dei bidez ezin daitezkeenak, eta enpresarekin harremanetan egoteko aukera ere ematen dugu, negozioen telefono-zenbakia edo helbideak jakin gabe. Hau da, negozioen informazioa modu erraz batean lortzea ahalbidetzen dugu.

